GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.K GAIKAKO BIOHONDAKIN BILKETA EGITEKO ATZEKO KARGAKO ETA 8M^3 KAXA DUEN IBILGAILU EZ KONPAKTATZAILE BATEN HORNIDURA KONTRATATZEKO AGIRI TEKNIKOA

Aurkibidea

1. KONTRATUAREN XEDEA 2
2. EZAUGARRI OROKORRAK 2
2.1. EZAUGARRI ZEHATZAK 2
2.2. ENTREGAREN EZAUGARRI OROKORRAK 2
3. ATZEKO KARGAKO KAXAREN EZAUGARRI OROKORRAK 3
3.1. BILKETARAKO KAXAREN DOCUMENTAZIOA, ZERTIFIKATUAK ETA FORMAZIOA 7
4. TXASISAREN EZAUGARRI TEKNIKO OROKORRAK 8
4.1. TXASISAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA ETA FORMAZIOA 11
5. IBILGAILUAREN HARTZEA ETA GARANTIA 11

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen helburua biohondakinaren bilketa eta garraiorako neurri egokiak dituen eta gutxienez konpaktazioa 0 izan dezakeen atzeko kargako ibilgailu baten erosketa bidezko horniketa da, plegu honetan eta plegu administratiboetan zehazten diren baldintzen arabera.

2. EZAUGARRI OROKORRAK

Hornitu beharreko ibilgailua atzeko kargakoa izango da eta bere erabilera printzipala sortzaile handiek sortutako biohondakinaren kubo bidezko bilketa selektiboa izango da.

Bilketa hau burutzeko 10 eta 40 litro arteko kuboak erabiliko dira, baita merkataritza eta industriako bilketak egiteko edukiontziak ere. Beraz, ibilgailuak edukiontziak gora jasotzeko gailua integratuta izan behar du, karga-kutxa husteko lanak egoki egiteko moduan.

Ibilgailuak erabilera honetarako egokia izan beharko du. Horrez gain, pardelak eta konpresak eta antzekoak ere jasoko dira bilketa ruta guztietan, bilketarako kaxan jasotzen ari den biohondakin atalaz gain. Horregatik, ibilgailuak bere alde bietan kutxa edo antzekoak izango ditu, bilketarako kaxaz gain, bere bolumen erabilgarria gutxienez 0,4m3koa izango delarik. Honen irisgarritasuna, deskarga eta hustuketa ahalik eta erosoena izango da.

Kamioien oinarrizko diseinuak kontuan izan behar ditu hondakinak biltzeko zerbitzu bati eska dakizkiokeen baldintzak, hala nola:

- Ahalik eta zaratarik gutxien egitea
- Ahalik eta gas gutxien botatzea ihes-hoditik.
- Ahalik eta maniobragarritasunik handiena.
- Ahalik eta erlaziorik onena edukieraren eta dimentsioen artean.
- Ahalik eta lixibiatuen bilketarik onena.
- Aplikatu beharreko legeriak eta araudiak ezarritako baldintzak betetzea.

2.1. EZAUGARRI ZEHATZAK

Ibilgailua erabat berria izango da. Ibilgailuaren kaxaren barneko edukiera garbia 8m^3-koa izango da, toberaren edukieraz gain. Bi ardatzetako txasisaren gainean muntatuta egongo da.

2.2. ENTREGAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Esleipendunak ibilgailua erabat karrozatuta entregatuko du, berau izango delarik ondorio guztietarako (teknikoa, legala…) kaxa eta txasisaren arteko egokitasun eta bateragarritasunaren erantzule. Ibilgailua Garbitaniari bere instalazioetan entregatuko dio, soilik aseguruaren faltan zerbitzua emateko prest. Esleipendunaren erantzukizuna izango da besteen artean:

- Karrozatzeko zentrurako txasisaren garraioa, baita berau garraio internazionala bada ere.
- Ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren izapidea.
- Matrikulazioa.
- Tasak eta zergak.
- Garbitaniaren instalazioetara karrozatu eta legalizatutako ibilgailuaren garraioa.

3. ATZEKO KARGAKO KAXAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Kaxak tobera klasikoa izango du, tail-gate modukoa. Plegu honetan zehaztutako edukiera kaxari dagokiona da, toberaren edukieraz gain.

Kargarako toberaren edukiera zehaztuko da, baita hondakinen prozesaketa abiadura (m^3/minutu) nahiz prentsaren lan zikloaren iraupena ere (segundutan)

Ibilgailuak segurtasun, sendotasun, iraunkortasun, estankotasun eta garbitasun baldintza egokiak izango ditu. A eta B ataletan, ibilgailuak izan behar dituen ezaugarriak eta ekipamenduak zehazten dira. Aurkezten den ibilgailuaren zehaztapenak adierazi egin beharko dira. [*] ikurrarekin markatzen dira eskatzen diren nahitaezko eta gutxieneko ezaugarriak:

A atala

- Kaxa mota:

1- Kaxaren edukiera garbia (8 m^3) (*)
2- Sarrerako toberaren edukiera minimoa (1 m^3) Tailgate eta tobera duen ibilgailua exigitzen da biohondakinaren prozesaketa burutzeko edukiera handiagoa izateagatik, hustutzea burutzerakoan duen segurtasun altuagoagatik eta lanerako duen altuera baxuagoagatik.
3- Hustutze mekanismoa tailgate eta plaka eiektore bidezkoa (*)
4- Prozesaketa abiadura (m^3/minutu)
5- Orrazia jasotzeko denbora edukiontzi bakoitzeko (segundoak)
6- Trinkotze-maila programagarrien hautagailua. Gutxienez trinkotzeko aukera 0 izan dezan exigitzen da (*)
7- Tobera soinugabetua. Sonometria CE 2000 arauaren arabera eta kanpo ziurtagiria (*)
8- Ibilgailuaren altuera guztira (m)

9- Ibilgailuaren zabalera guztira (m)
10- Ibilgailuaren luzera guztira (m), ardatz arteko distantzia 3.500 mm-rako.
11- Poltsaketa altuera toberan (gehienez 1400mm) (*)
12- Pardelen bilketarako edukiontzi ateragarriak (gutxienez 0,4m3) Edukiontziak ibigailuaren azpian joango dira kaxaren azpian eta honi lotuta (nahiago bi aldeetara) eta atera daitezkeen edukiontziak izango dira. Neurtuko den bolumena kargarako ahoaren maldaraino neurtuko da, gutxienez 400mm zabal eta 200mm altu izango delarik. Ezaugarriak gehiago zehaztuko dira esleipena indarrean egon ondoren (*)
13- Koipeztatze automatiko zentralizatua kutxako eta jasogailuko ahal den puntu guztietarako (*)

B atala

- Kubo- eta edukiontzi-jasogailua: jasogailu balioanitza eta sinkronizatua 60 eta 390 litro bitarteko edukiontzientzat EN 840/1 arauaren arabera. Baita tapa laua duten 500-1000 litroko edukiontzientzat ere (EN 840/2 araua). Orrazi eta atzemate-besoen sistemak izango ditu (DIN buloi arra) nahiago izango delarik bolteo kopurua kontatzen dituen sistema (*)

- Jasotzeko mekanismoak segurtasun-balbulak izan behar ditu hodi malguen hausturaren aurrean babesteko edo beste gailu batzuk, ustekabean beheratu ez dadin (*)

- Aginte-koadroa kabinan, kanpokoez gain (*)

- Ezinezkoa izan behar du goratzeko mekanismoa erabiltzea ibilgailua desplazatzen den bitartean eta pausagune-posizioan segurtatuta egon behar du (*)

- Sistema hidraulikoaren hodi eta akzesorio guztiak zerbitzu-presioa baino gutxienez bi aldiz haustura-presio handiagorako diseinatu behar dira, eta ibilgailuaren alboetan kokaturik daudenean babestuta egon behar dute bat-bateko hausturak eragindako olio-jaurtitzeen aurrean. Kalitate handiko lotura malguak, gutxienez bi mailakoa gune kurbatuetan eta lau mailakoa gune zuzenetan.

- Huste-fasean, edukiontzia eskuz astindu ahal izango du (*)

- Kabinak larrialdietan geratzeko botoia izango du, ekipamenduaren funtzionamendua desaktibatzeko, ibilgailuaren martxako segurtasun-funtzio guztiak mantenduz. Kanpoko botoietan ere egongo da larrialdietan geratzeko sakagailu bat (*)

- Arrapala eta toberak:

- Prentsa-tobera sistemak egokia izan behar du biohondakina deskargatu eta irensteko, korrosioaren aurrean sendoa eta erresistentea (*)

- Pieza bakarrean, kalitate eta lodiera egokiekin jasan beharreko esfortzuaren arabera. Toberaren azpia urraduren kontra berunezkoa izango da, gutxienez 6mm-ko lodierarekin. Azpi honen altzairu mota zehaztuko da.

- Komeniko litzateke tobera sabaia edo estalki batekin estaltzea, euri-ura ez sartzeko eta bildutako hondakinari ura ez gaineratzeko.

- Biohondakinaren altxatze mekanismoa, toberatik almazenatze guneraino eta plaka eiektorea:

    - Plaka eiektoreari aplikaturiko presioaren kontrol-sistema kabinan, gutxienez 0 posiziokoa. Bilketa-langileak (gidariak edo peoiak) mekanikako ezagupenik gabe erraz erabiltzeko modukoa (*)

    - Posizio bakoitzaren presioak birprogramagarria izan behar du. Zehaztu egingo da langileak izango duen hautatzeko modua (software pantaila, eragingailu mekaniko edo besteren bidez) (*)

    - Alderik aldeko plaka eiektorea (gutxigorabehera 150mm), efektu bikoitzekoa, erabat atzera bota daitekeena, kaxaren erabateko hustutzea ahalbidetzeko eta mantentze eragiketak egitea errazteko (*)

- Estankotasun-junturek kutxaren eta tailgate arteko ukipen-perimetro osoa estaliko dute ahal den goreneraino. Kutxak ahal den estankotasun handiena ziurtatuko du estalki itsu, itxitura eta abarren bidez, lixibiatuak kanpora irtetea eragozteko. Lixibiatuak irteteko balbula eragingarriak izango ditu (*)

- Lixibiatuak jasotzeko erretilua izango du tailgate gomaren zatirik behenean kokatua egongo delarik eta toberara itzulerarekin (*)

- Lixibiatuak jasotzeko erretilua edo tanga, itxitura lasterrarekin edo deskargako balbularekin, ahal bada bai kutxaren aurrealdean eta bai atzean, erraz hustu eta garbitzeko modukoak (*)

- Argiztapen osoa LED izango da (*) aurreko fokoak izan ezik, azken hauetan aukerazkoak izan daitezkelarik.

- Atzeko argiak babes metaliko batez perimetro osoan zehar babestuta, argiztapen zonaldea errespetatuz (*)

- Argi birakari distiratsuak, araudiak eskatzen dituenak, anbar kolorekoak, goiko aldean, angelu guztietatik ikusteko modukoak eta langileak ez itsutzeko moduan kokatuak (*)

- Dagozkion banda erretroislatzaileak izango ditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera (*)

- Ohartarazle akustikoa, atzeko atetzarra goratuta mugitzen bada kamioia (*)

- Gauez lan egiteko beharrezko argiak: tobera, edukiontziak manipulatzeko gunea, etab. Gutxienez 75 lux-eko argitasuna, lurretik metro batera neurtuta (*)

- Atzeko estriboak tolesgarriak alde banatan, presentzia-kontrolarekin eta irristatzearen kontrakoa. Atzeko martxaren gaigabetzea biltzailea estriboan doan bitartean. Dardarren maila kanpoko neurketen ziurtagirien bidez frogatuko da, RD 1311/2005aren arabera (*)

- Segurtasun-sistemak erabiliko dira: larrialdietan geratzeko, segurtasuneko hesi materialak eta immaterialak, zati mugikor eta ertzak babesturik eta seinaleztatuta.

- Kontrol-aginteak eta sakagailu txirrina kutxaren alde banatan.

- Margotzea: kaxa txasisaren kolore berarekin margotuta etorriko da: zuri normalizatua. Ekipamenduko espazio guztiak korrosioaren aurka babestuta egongo dira eta gutxienez ondorengo lanak egingo dira: koipegabetzea eta azaleko fosfatatzea, oinarrizko pasta, inprimazio bi kapa, itxitura zigilatua, kabinaren kolore bereko margo zuri normalizatuzko bi kapa, poliuretano kalitate eta lehortzea 60 gradura.

- Segurtasuna eta bestelako ekipamenduak:

    - Identitate-plaka, EE ziurtagiria makinen segurtasunari buruzko 2006/42/EE zuzentaraua (lehen 98/37EEE), EN 1501/2 araua betetzen duen ziurtagiria, eta zarata-igorpenari buruzko 2000/124/CEE zuzentaraua betetzen dela dioen ziurtagiria (*)

    - 30km/h abiadura mugatzailea eta atzeko martxaren desgaitzea (*)

    - Pala eta erratza jartzeko euskarria (*)

    - Atzealdea ikusteko kamera eta koloretako monitore planoa kabinan (*)

- Txasisen erregulagailu automatikoa (esekidura) (*)
- Txirrindularien babeski homologatua (*)

3.1. BILKETARAKO KAXAREN DOCUMENTAZIOA, ZERTIFIKATUAK ETA FORMAZIOA

Erabilera eta mantentze-lanetako eskuliburuaren kopia bat euskarri digitalean eta bi paperean entregatu behar dira gaztelaniaz, ibilgailuaren elementu guztien desmuntatzearekin eta zirkuitu elektriko, pneumatiko edo/eta hidraulikoen planoekin.

Prebentzio mantentzea eta mantentze-programa izan behar ditu, eta mantentze-prozeduraren informazio zehaztua eman beharko du; erabili aurrekoa, ondorengoa eta aldian behingoa. Segurtasun-informazioaren atal espezifiko bat, mantentze-lanetarako segurtasun-neurri, arreta orokor eta segurtasun-jardunbideekin. Halaber, mantentze lanetako langileen prestakuntzarako gutxieneko eskakizunei buruzko informazioa ere eman behar du.

Esleipenduak eman beharreko gutxieneko formazio ikastaroak (formazio teknikoa eta lan arriskuen aurkako prebentzioa), kaxari dagozkionak:

- Garbitania Zero Zabor SLk izendatutako langileentzat.
- Tailerreko langileentzat, mantentze-lanetako eta konponketako langileentzat, behar besteko iraupenekoak, tailerreko buruaren iritziz, teorikoa eta praktikoa barne.
- Ikastaroak Hernaniko udalerritik kanpo egiten badira, esleipendunak ordainduko ditu sortutako gastu guztiak.

Saldu osteko zerbitzua: saldu osteko zerbitzuaren irismena zehaztuko da, baimendutako tailer ofizialen sarea, baliabide materialak eta giza baliabideak, langileen prestakuntza teknikoa eta kokapen geografikoa zehaztuz, baita ordezko piezen biltegiaren kokapena ere. Dokumentazio teknikoarekin batera, tailerreko langileei emandako ikastaroen ziurtagiria aurkeztu beharko da. BALDINTZA BAZTERTZAILEA (*)

Hornitzaileak jatorrizko ordezko piezak hornitzen direla bermatu beharko du ibilgailua jaso eta hurrengo 10 urteetan.

Era berean ondorengo dokumentazio hau aurkeztuko da:

- Taula osoa non zehaztuko den kaxaren eraikuntzarako erabilitako materialak, erabilitako altzairuen kalitatea zehaztuz, lodierak, gogortasuna, izen komertzialak, etabar.

- Modeloa merkaturatu zen urtea eta hilabetea.

- Adostasun-adierazpena.

- CE marka.

- Segurtasun ziurtagiriak.

- Kanpo-erakundearen ziurtagiria, aire zabalean erabiltzeko makinen ondorioz inguruan dauden soinu-emisioen probak egin direla adieraziz, aplikatzekoa den araudiaren arabera (2000/14/EEE Zuzentaraua, 212/2000 ED; EN ISO 3744 Araua), ziurtatzen den gehieneko potentzia akustiko ziurtatuaren maila adierazten duena

UNE-EN 1501-1:2012 araubidea

4. TXASISAREN EZAUGARRI TEKNIKO OROKORRAK

Autobastidoreak ezaugarri egokiak izan behar ditu baldintza hauetan zehazten diren elementuak hartu eta garraiatzeko, bere karga-aukeretara egokituz eta horien barruan maniobra errazteko dimentsio murriztuagoetara.

Indarrean dagoen legeria bete beharko du, batez ere ardatzetan pisuen banaketari dagokionez, gutxieneko ekipamendu hau izango duelarik:

- Baimendutako gehieneko pisua: 12 Tn (*)

- Gutxienezko potentzia: 210CV (*)

- Ardatzen arteko distantzia: gutxigorabehera 3500 mm. (*)

- Pare handikoa biraketa apaletan, indar-hartzea onartzeko moduan, karrozeriako punpen eragintzarako beharrezko potentzia emango duena, ahalik eta biraketa gutxienekin minutuko, prestazioak mantenduz (ziklo-denbora, prentsaketa, koipeztatzea, etab.). Zehaztu motorraren minutuko biraketen arabera lorturiko pare-kurba dagokion araubidea jarraituz (*)

- Kutxak eskatzen dituenetara egokitutako indar-hartzea. Etengabeko konexioan, hau da, ez dezala eska enbragatu eta desenbragatzea gune bakoitzean. Aurreko puntuarekin koherentzian, indar hartze-punpa

multzoak ahalik eta minutuko bira kopuru txikienean funtzionatu behar du. Indar-hartzearen marka eta modeloa zehaztu behar dira (*)

- Abiadura-mugatzailea, legezko abiadura maximoan erregulatua (*) Hobe kalibratutako takografo digitaletik abiadura seinalea har ez dezala, azken hau gabe aritzeko gaitasuna izan dezan. Izan ere ibilgailu mota hauek salbuetsiak daude.

- Esekidura-sistema, ibilgailuaren luzetarako nibelazioa bermatuko duena, bai hutsik eta bai erabat beteta dagoenean (*)

- Ihes-hodi bertikala, larruazalean erredurak eragozteko babestua, indarrean dagoen aplikazioko Arauaren arabera.

- Isuriei buruzko EURO 6 araudia beteko du, eta ahal bada EEV estandarra, eta hori dagozkion ziurtagiriekin egiaztatu behar da.

- Martxa-kutxa automatikoa. Zehaztu egingo dira martxa-kutxaren marka eta eredua (*) Hobe parearen bihurgailuarekin.

- Kabina motza, kolore txurikoa (*) Bertara heltzeko erraztasuna balioetsiko da.

- Direkzio lagundua (*)

- Altueran eta distantzian erregula daitekeen bolantea (*)

- Klimatizagailua edo aire egokitua (*)

- Kabinan homologaturiko hiru postu segurtasun-gerrikoekin (*)

- Atzerako ispilu kalefaktatuak lurrunaren aurkakoak. Bat panoramikoa ate banatan eta beste bat gehigarria kopilotuaren aldean, eskuineko gurpila kontrolatzeko. Barrutik elektrikoki erregulatzeko modukoak, gutxienez kopilotuaren aldekoa. Ispilu panoramikoa aurrealdean (*)

- Beira-igogailu elektrikoa

- Horometroa eta biraketak zenbatzekoa, aginte-koadroetan integratuta (*)

- Lainotako argiak (*)

- Blokeoen aurkako sistema (ABS) (*)

- Kabinatik jaisterakoan esku-freno edo balazta eragin gabe dagoenerako hotsalarma (*)

- Su-itzalgailuak, indarrean dagoen araudiaren araberakoak, euskarriak barne (*)

- Ez irristatzeko zorua, garbigarria, erraz ateratzekoa (*)

- Ez irristatzeko pintura ateetako hegaletan, baldin eta hor bermatu beharra baldin badago kabinara sartzeko (*)

- “Esku libreko" instalazioa, marka askorentzat balio duena, aginte-mahaian integratua, hari gabeko konexiodun mugikorrarentzat (*)

- Irrati-USBa, oinarrizko CD erreproduktorea eta bozgorailu-sistema (*)

- Erregai-tanga giltzarekin (*)

- Kutxa handia kate eta beste elementu osagarri batzuentzat. Tresna edo erreminta-hornidura osoa (argiak, katua, hirukiak, etab.), baita euskarriak, ordezko gurpila eta jaka islatzaileak ere. Ez da beharrezkoa ekipazio hau ibilgailuan muntatuta etortzea, baina Garbitaniari eman egingo zaio (*)

- TV kamera eta monitorea kabinan, atzerako martxaren maniobra kontrolatzeko.

- Atzera martxako hots-ohartarazlea, txistu-potentzia aldakorrekoa eta aplikaziorako araudiaren araberakoa, etengailuaren baliogabetzea barne (*)

- Kolpe-leungailuak, ahal izanez gero metalezkoak.

- GPS bidez kokapena kontrolatzeko sistema bat ezartzeko aurre-instalazioa egina izatea eta bilketak kontrolatzeko unitatea ondorengoaren bidez:

    - Antena ibilgailuaren goiko aldean (ibilgailuaren kanpo aldera)
    - Kontrol unitateari, GPS hartzaileari etabarri energia hornitzeko beharrezko kableatu guztiaren instalazioa. Elementu guztien artean datuak transferitzea ahalbidetzea.
    - Ibilgailuaren bidaiari-lekuan osagai ezberdinen integrazio hoberena.
    - Kontratuaren sinaduraren ondoren Garbitaniak zehaztuko ditu ondoren ezarri beharreko ekipoek eskatuko dituzten behar teknikoak; esleipendunari eska diezaioke ekipo hauen ezartzea hauen hornitzailearekin modu koordinatuan (ibilgailuen entrega baino lehen hauek edukiz gero)

- Koipeztatze automatiko zentralizatua posible diren gune guztietarako: kutxa, jasogailua eta txasisa (*)

4.1. TXASISAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA ETA FORMAZIOA

Txasisaren erabilera eta mantentze-lanetako eskuliburuaren kopia bat euskarri digitalean eta bi paperean entregatu behar dira gaztelaniaz, ibilgailuaren elementu guztien desmuntatzearekin eta zirkuitu elektriko, pneumatiko edo/eta hidraulikoen planoekin.

Eskuliburu honen edukia EN ISO 12100-2 Arauaren 6.5 atalean zehaztutakoaren araberakoa izango da. Prebentzio mantentzea eta mantentze-programa izan behar ditu, eta mantentze-prozeduraren informazio zehaztua eman beharko du; erabili aurrekoa, ondorengoa eta aldian behingoa. Segurtasun-informazioaren atal espezifiko bat, mantentze-lanetarako segurtasun-neurri, arreta orokor eta segurtasun-jardunbideekin. Halaber, mantentze lanetako langileen prestakuntzarako gutxieneko eskakizunei buruzko informazioa ere eman behar du.

Esleipenduak eman beharreko gutxieneko formazio ikastaroak (formazio teknikoa eta lan arriskuen aurkako prebentzioa), txasisari dagozkionak:

- Garbitania Zero Zabor SLk izendatutako langileentzat.

- Tailerreko langileentzat, mantentze-lanetako eta konponketako langileentzat, behar besteko iraupenekoak, tailerreko buruaren iritziz, teorikoa eta praktikoa barne.

- Ikastaroak Hernaniko udalerritik kanpo egiten badira, esleipendunak ordainduko ditu sortutako gastu guztiak.

Saldu osteko zerbitzua: saldu osteko zerbitzuaren irismena zehaztuko da, baimendutako tailer ofizialen sarea, baliabide materialak eta giza baliabideak, langileen prestakuntza teknikoa eta kokapen geografikoa zehaztuz, baita ordezko piezen biltegiaren kokapena ere. Dokumentazio teknikoarekin batera, tailerreko langileei emandako ikastaroen ziurtagiria aurkeztu beharko da. Berme-epean mantentze-zerbitzua Garbitaniako bulegoetatik 40 kilometro baino gutxiagora dagoen tailer batean eskainiko da.

Hornitzaileak jatorrizko ordezko piezak hornitzen direla bermatu beharko du ibilgailua jaso eta hurrengo 10 urteetan.

Hornitzaileak beharrezko dokumentazio, ziurtagiri eta homologazio guztia emango du.

5. IBILGAILUAREN HARTZEA ETA GARANTIA

Garantia: iraupena eta irismena zehaztuko da, gutxienez plegu administratiboetan zehaztutakoa betez (makinaren zein bere elementu guztien garantia gutxienez urte batekoa izango da, hartzearen egunetik kontatzen hasita)

Hartzea, aurkeztutako eskaintzarekin bat datorren ibilgailuaren funtzionamendua frogatzeko probak burutu eta 5 egunetara emango da.

Probak gaindituz gero, Garbitaniak hornidura jasoko du eta orduan jarriko da martxan garantia epea.

DILIGENTZIAK.- Agiri teknikoen agiri hau Garbitania Zero Zabor SLren administrazio-kontseiluak onartu zuen 2023ko apirilaren 28an egindako bilkuran.

Hernanin, 2023ko apirilaren 28an

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO DE UN CAMION DE CARGA TRASERA NO COMPACTADOR Y DE CAJA 8M^3 PARA LA RECOGIDA SELECTIVA DE BIORRESIDUO POR GARBITANIA ZERO ZABOR S.L.

Índice

1. OBJETO DEL CONTRATO 2

2. CARACTERISTICAS GENERALES 2

2.1. CARACTERÍSTICAS ESPECÍFICAS 2

2.2. CONDICIONES GENERALES DE LA ENTREGA 3

3. CARACTERÍSTICAS GENERALES DE LA CAJA RECOLECTORA DE CARGA TRASERA 3

3.1. DOCUMENTACIÓN, CERTIFICADOS Y FORMACIÓN SOBRE LA CAJA RECOLECTORA 7

4. CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS GENERALES DEL CHASIS 8

4.1. DOCUMENTACIÓN Y FORMACIÓN SOBRE EL CHASIS 11

5. RECEPCIÓN DEL VEHÍCULO Y GARANTÍA 12

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es el suministro mediante compra de un vehículo de carga trasera, como mínimo, con opción de compactación 0 y de capacidad adecuada para la recogida y transporte de biorresiduo, según las condiciones que se definen en el presente pliego y en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

2. CARACTERISTICAS GENERALES

El vehículo a suministrar será de carga trasera y su utilización principal será la recogida selectiva con cubos de la fracción biorresiduo generados por grandes generadores.

Para dicha recogida se utilizarán cubos entre 10 y 40 litros de capacidad y, asimismo, contenedores de carga trasera normalizados para las recogidas comerciales e industriales. El vehículo deberá por lo tanto contar con dispositivos elevacontenedores integrados que puedan realizar adecuadamente las funciones de vaciado en la caja de carga, de contenedores estandarizados.

El vehículo deberá ser adecuado para esta utilización. Se recogerán además pañales, compresas y similares en todas las rutas de recogida, independientemente de la fracción biorresiduo que se esté recogiendo en la caja de carga del vehículo. Consecuentemente, el vehículo debe estar equipado con contenedores o similares integrados en los laterales del vehículo, independientes de la caja recolectora, de un mínimo de 0,4 m^3 de volumen útil y de acceso, descarga y vaciado lo más cómodo posible.

La concepción básica del camión debe tener en cuenta las condiciones exigibles a un servicio de recogida de residuos, como son:

A. Mínimas emisiones de ruido
B. Mínimas emisiones de gases de escape
C. Máxima maniobrabilidad
D. Óptima relación capacidad-dimensiones
E. Óptima recogida de lixiviados
F. Cumplimiento de las condiciones impuestas por la legislación y normativa aplicables.

2.1. CARACTERÍSTICAS ESPECÍFICAS

El vehículo será totalmente nuevo. La capacidad neta interior de la caja será de 8 m^3, aparte la capacidad de la tolva. Irá montada en un chasis de dos ejes.

2.2. CONDICIONES GENERALES DE LA ENTREGA

El adjudicatario entregará el vehículo completamente carrozado, siendo él mismo responsable de la perfecta idoneidad y compatibilidad entre caja y chasis, a todos los efectos (técnico, legal, etc.). El vehículo se entregará a Garbitania en sus instalaciones, tan solo a falta de seguro para poder entrar en servicio, siendo responsabilidad del adjudicatario, entre otros:

- El transporte del chasis al centro de carrozado, incluso si este traslado es internacional.
- La tramitación de la Inspección Técnica del Vehículo.
- La matriculación.
- Las tasas e impuestos.
- El transporte y la entrega del vehículo carrozado y legalizado a las instalaciones de Garbitania.

3. CARACTERÍSTICAS GENERALES DE LA CAJA RECOLECTORA DE CARGA TRASERA

La caja deberá contar con tolva de carga clásica, tipo tail-gate. La capacidad aproximada que se indica en este pliego está referida a la caja, aparte la capacidad de la tolva.

Se especificará la capacidad de la tolva de carga, así como la velocidad de procesamiento de residuos, en m^3 por minuto, y la duración del ciclo de trabajo de la prensa, en segundos.

El equipo presentará condiciones adecuadas de seguridad, robustez, durabilidad, estanqueidad y limpieza, con un equipamiento mínimo según los siguientes apartados A y B de especificaciones (se marcan con el símbolo (*) las características mínimas exigidas):

Apartado A

-Modelo de caja:

14- Capacidad neta de la caja (8 m^3) (*)
15- Capacidad mínima de la tolva de entrada (1 m^3) Se exige camión con tailgate y tolva por su mayor capacidad de procesamiento del biorresiduo, mayor seguridad a la hora de efectuar la descarga y menor altura de trabajo.
16- Mecanismo de descarga mediante elevación de tailgate y placa eyectora (*)
17- Velocidad de procesamiento (m^3/minuto)

18- Tiempo de recogida del peine por contenedor (segundos)
19- Selector de niveles de compactación programables. Se exige como mínimo la opción de compactación 0. (*)
20- Tolva insonorizada. Sonometría según norma CE 2000 Y Certificado externo. (*)
21- Altura total del vehículo (m)
22- Anchura total del vehículo (m)
23- Longitud total del vehículo, para distancia entre ejes de 3.500 mm (m)
24- Altura de bolseo en la tolva (máximo 1400mm) (*)
25- Volumen neto de contenedores extraíbles para recogida de pañales (mínimo 0,4m^3) La solución de los contenedores irá en los faldones del vehículo por debajo de la caja y fijados a esta (preferiblemente uno a cada lado) y será en forma de contenedores extraíbles. El volumen se medirá hasta la rasante inferior de la boca de carga, que será como mínimo de 400mm de ancho por 200 mm de alto. Se especificarán más las características una vez adjudicada la licitación (*)
26- Engrase automático centralizado para todos los puntos posibles de la caja y el elevador (*)

Apartado B

- Elevador de cubos y contenedores: elevador polivalente y sincronizado para contenedores de entre 60 y 390 litros según norma EN 840/1. También para contenedores de tapa plana de entre 500-1000 litros (norma EN 840/2) Con sistema de peine y de brazos de aprehensión (DIN a bulón macho) preferible sistema de contaje de volteos (*)

- El mecanismo de elevación debe estar equipado con válvulas de seguridad para la protección frente a la rotura de los tubos flexibles u otros dispositivos para evitar la bajada accidental. (*)

- Cuadro de mandos en cabina, además de los exteriores (*)

- El mecanismo de elevación no debe poder operarse mientras el vehículo se desplaza y se debe asegurar en su posición de reposo. (*)

- Todos los tubos y accesorios del sistema hidráulico deben diseñarse para una presión de rotura de al menos dos veces la presión de servicio y cuando estén situados a los lados del vehículo deben estar protegidos frente a una proyección de aceite debida a una ruptura repentina. Latiguillos de alta calidad, con un mínimo de doble malla en zonas curvas y cuádruple malla en zonas rectas.

- Podrá sacudir el contenedor, en la fase de vaciado, de forma manual. (*)

- Dispondrá la cabina de un botón de paro de emergencia para desactivar el funcionamiento del equipo manteniendo todas las funciones de

seguridad de marcha del vehículo. Cada botonera externa dispondrá asimismo de un pulsador de paro de emergencia. (*)

- Rampa y tolvas:

    - El sistema de pala-tolva deberá ser adecuado para la descarga y tragado de materia orgánica, robusto y resistente a la corrosión. (*)

    - En una sola pieza, según el esfuerzo que tengan que sufrir con calidades y grosores adecuados. El fondo de la tolva será de acero contra rozaduras, por lo menos de 6 mm de grosor. Se detallará el tipo de acero de este fondo.

    - Es deseable que la zona de tolva quede cubierta para evitar la entrada de agua de lluvia y añadir agua al residuo recogido.

- Mecanismo de elevación de biorresiduo desde la tolva a la zona de almacenamiento y placa eyectora:

    - Sistema de control en cabina de la presión aplicada a la placa eyectora, como mínimo con opción de compactación 0. De fácil uso por parte del operario de recogida sin conocimientos de mecánica (conductor o peón) (*)

    - La presión de cada posición debe ser reprogramable. Se especificará el modo de selección por parte del operario (mediante pantalla de software, accionadores mecánicos, u otros) (*)

    - Placa eyectora pasante (aproximadamente 150mm), de doble efecto, con opción de replegado total, que permite la total descarga de la caja y facilita operaciones de mantenimiento. (*)

- Las juntas de estanqueidad cubrirán todo el perímetro de contacto entre caja y tailgate hasta la máxima altura. La caja asegurará la máxima estanqueidad mediante tapas ciegas, cierres u otros, de manera que se prevenga la salida de lixiviados al exterior. Contará con válvulas accionables de salida de lixiviados. (*)

- El equipo deberá contar con una bandeja para recogida de lixiviados situada bajo la parte más baja de la goma del tailgate, con retorno a la tolva. (*)

- Bandeja o depósito de recogida de lixiviados, con cierre rápido o válvula de descarga, preferiblemente tanto en la parte delantera como en la trasera de la caja, fácilmente vaciables y lavables. (*)

- Toda la iluminación deberá ser LED (*) exceptuando los focos delanteros, siendo opcional en estas últimas.

- Pilotos traseros protegidos en todo su perímetro por una protección metálica, respetando la zona de iluminación (*)

- Contará con los faros giratorios destellantes exigidos por normativa, ámbar, en la parte superior, visibles desde todos los ángulos y situados de manera que no deslumbren a los operarios. (*)

- Contará con las bandas retrorreflectantes correspondientes, según normativa de aplicación. (*)

- Avisador acústico si el camión se mueve con el portón trasero levantado. (*)

- Focos necesarios para trabajo nocturno: tolva, zona de manipulación de contenedores, etc. Iluminación mínima de 75 lux medidas a un metro por encima del nivel del suelo. (*)

- Estriberas traseras a cada lado, plegables, con control de presencia y antideslizantes. Inhabilitación de marcha atrás con operario en estribera. El nivel de vibraciones se justificará con certificación de mediciones de entidad externa según RD 1311/2005. (*)

- Incorporará sistemas de seguridad para: parada de emergencia, barreras materiales e inmateriales de seguridad, protección y señalización de partes móviles y aristas.

- Mandos de control y pulsador timbre a ambos lados de la caja.

- Pintado: La caja vendrá pintada en el mismo color que el chasis: blanco normalizado. Todos los espacios del equipo se protegerán frente a la corrosión y por lo menos se realizarán los siguientes trabajos: desengrase y fosfatado superficial, pasta básica, dos capas de imprimación, cierre sellado, dos capas de pintura blanco normalizado, igualado a la tonalidad de la cabina, calidad del poliuretano y secado a 60 grados.

- Seguridad y otros equipamientos:

    - Placa de Identidad, certificado CE cumpliendo la directiva 2006/42/CE (antes 98/37CEE) referente a la seguridad de las máquinas, certificado conforme a la norma EN 1501/2 y certificado de que se cumple la Directiva 2000/14/CEE sobre emisión de ruidos (*)

- Limitador de velocidad 30Km/hora e inhibidor marcha atrás. (*)
- Soporte para pala y escoba (*)
- Cámara para visión en parte trasera y monitor plano a color en cabina (*)
- Regulador electrónico de chasis (suspensión) (*)
- Protección homologada de ciclistas (*)

3.1. DOCUMENTACIÓN, CERTIFICADOS Y FORMACIÓN SOBRE LA CAJA RECOLECTORA

Se hará entrega de una copia en soporte digital y dos en papel del manual en castellano de uso y de mantenimiento de la caja, que incluya el despiece de todos los elementos del vehículo, y planos de circuitos eléctricos, neumáticos y/o hidráulicos. Debe incluir tanto el mantenimiento preventivo como todo el programa de mantenimiento. Deberá proporcionar información detallada del procedimiento de mantenimiento antes y después de la utilización, así como el uso periódico. Incluirá una sección específica de información de seguridad que cubra las precauciones de seguridad, las precauciones generales y las prácticas de seguridad para el mantenimiento. Deberá incluir igualmente la información sobre las exigencias mínimas de la formación del personal de mantenimiento.

Cursos de formación mínimos (formación técnica y de prevención de riesgos laborales), referentes a la caja, que deben proporcionar los adjudicatarios:

- Para el personal que designe Garbitania Zero Zabor S.L.
- Para personal de taller, sobre mantenimiento y reparación, de duración suficiente a juicio del jefe de Taller, incluyendo teórica y práctica.
- Si los cursos se realizan fuera del ámbito geográfico del municipio de Hernani, todos los gastos originados serán por cuenta del adjudicatario.

Servicio post-venta: se especificará el alcance del servicio post-venta, detallando la red de talleres oficiales autorizados, medios materiales y humanos, cualificación técnica del personal y su ubicación geográfica, así como la ubicación del almacén de repuestos. Se tendrá que presentar junto con la documentación técnica el certificado de los cursos impartidos al personal del taller. CONDICIÓN EXCLUYENTE (*)

El suministrador deberá garantizar el suministro de repuestos originales en los 10 años siguientes a partir de la recepción del vehículo.

Se aportará, asimismo:

- Un cuadro completo con indicación de los materiales empleados en la construcción de la caja, figurando en el mismo las calidades de los aceros empleados, espesores, dureza, denominación comercial, etc.

- Mes y año del lanzamiento del modelo.

- Declaración de Conformidad.

- Marcado CE.

- Certificaciones de seguridad.

- Certificación de entidad externa de ensayos de emisiones sonoras en el entorno debidas a las máquinas de uso al aire libre, según normativa de aplicación (Directiva 2000/14/CEE, RD 212/2000; Norma EN ISO 3744), que indique el nivel de potencia acústica máxima asegurada que se certifica.

NORMATIVA UNE-EN 1501-1:2012

4. CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS GENERALES DEL CHASIS

El autobastidor tendrá las características adecuadas para alojar y transportar los elementos que se detallan en este condicionado, ajustándose a sus posibilidades de carga y dentro de ellas a las dimensiones más reducidas para facilitar la maniobra.

Deberá satisfacer la legislación vigente, en especial la relativa a distribución de pesos por ejes, con un equipamiento mínimo de:

- Peso máximo permitido: 12 Tn (*)

- Potencia mínima: 210CV (*)

- Distancia entre ejes: aproximadamente 3500 mm. (*)

- El motor: de par elevado a bajas revoluciones, tal que admita una toma de fuerza que suministre la potencia necesaria para el accionamiento de las bombas de la carrocería, al mínimo de revoluciones por minuto posible, manteniendo las prestaciones (tiempo de ciclos, prensado,

engrase, etc.). Especificar la curva de par obtenido en función de las r.p.m. del motor siguiendo la normativa vigente. (*)

- Toma de fuerza adecuada a las solicitaciones de la caja. Toma de fuerza continua o en conexión constante, esto es, que no exija la activación cada vez que se vaya a hacer uso del equipo. En coherencia con el punto anterior, el conjunto toma de fuerza bomba, deberá funcionar al menor número de r.p.m. posible. Se especificará la marca y el modelo de la toma de fuerza (*)

- Limitador de velocidad, regulado a la velocidad legal máxima. (*) Preferiblemente que no coja la señal de velocidad desde el tacógrafo digital calibrado, para poder prescindir de este último, puesto que este tipo de vehículos están exentos del mismo.

- Sistema de suspensión que garantice la nivelación longitudinal del vehículo, tanto vacío como a plena carga. (*)

- Tubo de escape vertical, protegido para impedir quemaduras en la piel de acuerdo con la Norma de aplicación vigente.

- Cumplirá la normativa EURO VI de emisiones, y preferiblemente el estándar EEV, lo que se deberá acreditar con las certificaciones correspondientes.

- Caja de cambios automática. Se especificará la marca y modelo de la caja de cambios (*) Preferiblemente con convertidor de par.

- Cabina corta, de color blanco (*) Se valorará el acceso a la misma.

- Dirección asistida. (*)

- Volante regulable en altura y distancia. (*)

- Climatizador o aire acondicionado. (*)

- Tres plazas homologadas en cabina con cinturones de seguridad. (*)

- Retrovisores calefactados antivaho. Uno panorámico por puerta y uno adicional en el lado del copiloto, para control de rueda derecha. Regulables eléctricamente desde el interior, al menos el del lado del copiloto. Espejo panorámico delantero. (*)

- Elevalunas eléctricos.

- Horómetro y cuentarrevoluciones, integrados en los cuadros de mando. (*)

- Faros antiniebla. (*)

- Sistema contra bloqueos (ABS) (*)

- Alarma sonora de freno de mano sin accionar al bajarse de la cabina. (*)

- Extintores según normativa vigente, incluso soportes. (*)

- Piso antideslizante, lavable, fácilmente extraíble. (*)

- Pintura antideslizamiento en aletas de puertas, si se precisa ese apoyo para acceder a cabina. (*)

- Instalación "manos libres", polivalente multimarca, integrada en salpicadero, para móvil con conexión inalámbrica. (*)

- Radio USB reproductor básico y sistema de altavoces. (*)

- Depósito de combustible con llave. (*)

- Cajón para las cadenas y otros elementos auxiliares. Dotación completa de herramientas (lámparas, gato, triángulos, etc.), así como calzos, rueda de repuesto y chalecos reflectantes. No es necesario que esta equipación esté montada en el vehículo, pero sí se le dará entrega a Garbitania (*)

- Cámara de TV y monitor en cabina para el control de maniobra de marcha atrás.

- Avisador acústico de marcha atrás, de potencia de pitido variable, según normativa de aplicación, incluido el interruptor para la cancelación. (*)

- Parachoques preferiblemente metálicos.

- Pre-instalación realizada para la posterior instalación de un sistema de control de posicionamiento por GPS, y una unidad de control de recogidas mediante:

    - La instalación de una antena en la parte superior del vehículo (exterior del vehículo).
    - La instalación de todo el cableado necesario para suministrar energía a la unidad de control, receptor GPS, etc., así como para posibilitar la transferencia de datos entre los distintos elementos.
    - La mejor integración posible de los diferentes elementos del sistema en el habitáculo del vehículo.

- En cualquier caso, tras la firma del contrato, Garbitania definirá las necesidades técnicas propias que requerirán los equipos a implantar posteriormente; pudiendo incluso solicitar al adjudicatario, la instalación de estos equipos de forma coordinada con el suministrador de los mismos (en el caso de que se dispusiera de ellos con anterioridad a la entrega de los vehículos)

- Engrase automático centralizado para todos los puntos posibles del chasis. (*)

4.1. DOCUMENTACIÓN Y FORMACIÓN SOBRE EL CHASIS

Se hará entrega de una copia en soporte digital y dos en papel del manual en castellano de uso y de mantenimiento del chasis, que incluya el despiece de todos los elementos del vehículo, y planos de circuitos eléctricos, neumáticos y/o hidráulicos.

El contenido de dicho manual seguirá lo establecido en el apartado 6.5 de la Norma EN ISO 12100-2. Debe incluir tanto el mantenimiento preventivo como todo el programa de mantenimiento. Deberá proporcionar información detallada del procedimiento de mantenimiento antes y después de la utilización, así como el uso periódico. Incluirá una sección específica de información de seguridad que cubra las precauciones de seguridad, las precauciones generales y las prácticas de seguridad para el mantenimiento. Deberá incluir igualmente la información sobre las exigencias mínimas de la formación del personal de mantenimiento.

Cursos de formación mínimos (formación técnica y de prevención de riesgos laborales), referentes al chasis, que deben realizar los adjudicatarios:

- Para el personal que designe Garbitania Zero Zabor S.L.

- Para personal de taller, sobre mantenimiento y reparación, de duración suficiente a juicio del jefe de Taller, incluyendo teórica y práctica.

- Si los cursos se realizan fuera del ámbito geográfico del municipio de Hernani, todos los gastos originados serán por cuenta del adjudicatario.

Servicio post-venta: se especificará el alcance del servicio post-venta, detallando la red de talleres oficiales autorizados, medios materiales y humanos, cualificación técnica del personal y su ubicación geográfica, así como la ubicación del almacén de repuestos. Se tendrá que presentar junto con la documentación técnica el certificado de los cursos impartidos al personal del taller. Durante el plazo de garantía el servicio de mantenimiento se ofrecerá en un taller situado a una distancia menor de 40 kilómetros desde las oficinas de Garbitania.

El suministrador deberá garantizar el suministro de repuestos originales en los 10 años siguientes a partir de la recepción del vehículo.

El proveedor entregará toda la documentación, certificados y homologaciones necesarias.

5. RECEPCIÓN DEL VEHÍCULO Y GARANTÍA

Garantía: se especificará el alcance y duración de la garantía, cumpliendo como mínimo lo especificado en el pliego de cláusulas administrativas particulares (la garantía de la máquina como la de todos sus componentes será como mínimo de un año, a contar desde la recepción)

Se realizarán pruebas de funcionamiento del vehículo y en el plazo de 5 días se procederá a la recepción formal del mismo mediante la correspondiente acta.

DILIGENCIAS.- El presente documento de Pliegos Técnicos fue aprobado por el consejo de administración de Garbitania Zero Zabor S.L. en la sesión celebrada el 28 de abril de 2023.

En Hernani, a 28 de abril de 2023.